

Kataluniako lagun-en bisita

—Kaixo, Berta. Bihar nik jasoko zaituztet aireportuan; bederatzietarako han izango naiz.

—A, bai? Zuk jasoko gaituzu? Ai, zer jatorra zaren!

—Zuzenean etorriko gara etxera mailetak uztera. Gero, Alde Zaharra ezagutzera eramango zaituztet, eta Joxeren dendara joango gara. Poz-pozik jarriko da, aspaldi ez zaituzte ikusi-eta!

—Oso ondo! Guk ere badugu Joxe ikusteko gogoia!

—Ondoren, Joana zientzia-museoan utziko dugu Anderrekin eta zu artisautza-azokara eramango zaitut. Ikusiko duzu zenbat gustatuko zaizun!

—Bai, bai, seguru asko gustatuko zaidala!

—Arratsaldean, Elenak zaldiz ibiltzera eramango gaitu denok.

—Primeran! Zer ondo pasatuko dugun!

—Eta, gauean, kanpoan afaltzera gonbidatuko zaituztegu.

—Ados, kanpoan afalduko dugu, baina ez gaituzue gonbidatu behar.

—Tira, ikusiko dugu! Orduan, bederatzietan geratuko gara aireportuan?

—Hori da! Bihar arte!